



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**2007/08 DENBORALDIA**

## **19. ZIRKULARRA**

### **ARETO FUTBOLEKO GAZTE EUSKAL KOPA**

Areto-Futboleko Euskal Batzordeak, denboraldi honetarako lehiaketen Planean ezarritakoari jarraiki, lehiaketa hau ondorengo arauekin antolatuko du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

Berriotxo Ad, Bilbao Exbasa, Castro Udiales, Eskoriatza KE, Lauburu KE, San Jorge FS, Sestao FS Gazteen Maila Nazionaleko klub partaideak

#### **2. LEHIAKETA-SISTEMA**

Bi fasetan garatuko da:

##### **1. Fasea**

Lehiaketa honetarako 7 klub inskribatu direnez, egokiagoa dela kontsideratzen da hauek klub en 2 taldeetan sartzea.

Beraz, txanda bikoitzeko liga-sistemaren bidez garatuko da. Bigarren Faserako talde bakoitzean sailkapenik hoberena lortu duten biak sailkatuko direlarik.

##### **2. Fasea**

##### **Finalaurrekoa**

Partidu bikoitzaren bidez eginiko kanporaketekin, norgehiagokak talde bateko lehenengoak besteko bigarrenaren aurka erabakiko dira.

##### **Finala**

Dagozkien finalaurreko irabazleek hartuko dute parte, Areto-Futboleko Euskal Batzordeak erabakitako joko-eremuan.

Partidu guztiak, nahitaez baloi ofizialarekin lehiatu beharko dira, zein "PUMA" eredua baita.

Partidua hasten denean, talde lokalak gutxienez 5 balio izan beharko ditu eskuragarri, 2 arbitroarentzako eta 2 talde bisitariarentzako izanik.

Xedapen honen aurka dagoen klubak Lehiaketako Epaille Bakarrak ezarritako zigorra jasango du.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Taldeak joko-eremuan partiduaren hasierarako adierazitako ordua baino gutxienez ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira, denbora hau epaileari nahiz kronometratzaileari baimenak aurkezteko eskatzen den nahitaezko minimoa izanik.

Joko-pista jarduerarik gabe eta libre egon beharko da talde bisitariaren beroketa zilegi egiteko, partidua hasi baino hamabost minutu lehenago.

Partidu bati hasiera eman ahal izateko, talde bakoitzak joko-eremuan, eta partidua jokatzeko prest, gutxienez zortzi jokalaria aurkeztu beharko ditu, taldeko ordezkari batez gainera, halaber talde lokaletan joko-eremuko ordezkari bat eskuragarri izatea nahitaezkoa izanik, zein behar bezala identifikatzeaz gainera arbitroaren esanetara egongo baita.

Betebehar hau beteko ez balitz dagokion organo jurisdikzionalak falta arina bezala kontsideratuko luke.

### **3. BERDINKETAK**

Aldizkako berdinketak FVF-EFF - aren Araudi Nagusiak zehazten duen moduan ebatziko dira.

Lehenengo faseko partidu bakoitza amaitzean, emaitza edozein izanda ere, penaltien jaurtiketari ekingo zaio, klub bakoitzeko nahitaezko hiru, eta berdinketak iraungo balu, irabazle bat izan arte jaurtitzeko jarraituko da. Emaitza hau taldearen sailkapen nagusian gertatu ahal litekeen balizko berdinketa desegiteko azkeneko aukera bezala hartuko da kontuan.

### **4. DATAK**

1. Fasea: apirilak 6, 13, 20 eta 27 eta maiatzak 4 eta 11.
2. Fasea: Finalurrekoak maiatzak 18 eta 25  
Finala ekainak 1 (edota maiatzak 31)

### **5. ARBITRAJEAK**

Esleipena talde lokalari dagokion lurralde mailako mahaiko arbitro eta epaileen artean burutuko da. Dagokion erreziboaren ordainketa joko-eremuaren jabea den taldearen kontura burutuko da.

1. Fasean partiduak arbitro bakarrarekin eta jarduneko ordulariak neurtutako 25' kontuan izanik lehiatuko dira. Partidu berdinean jokalaria batek 2 txartel hori metatzeagatik eginiko 2 minutuko kanporaketari dagokion zigorra, ez da Lehenengo Fase honetan aplikatuko. Tarifa Arbitrala 67€  
Bigarren fasean partiduak arbitroa eta Mahaiko Epailearekin lehiatuko dira. Tarifa Arbitrala 94€



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## 6. JARDUNALDIAK ETA PARTIDUEN ORDUTEGIAK

Data, ordutegia eta partiduetarako joko-eremua Federazio honen esku egongo dira partida ospatu aurreko asteko ostiralaren 19:00ak baino lehenago, era berean talde aurkariari partida ospatu aurreko asteazkeneko 22:00ak baino lehenago jakinaraziko zaio. Partiduen hasierako ordutegiak ondorengo marjinen artean egongo dira:

Larunbatak: 15,45 – 20,00ak

Igandeak: 11,00 – 13,00 eta 16,00 – 18,00ak

Klub guztiek ezarritako partiduetako ordutegi ofizialak aldatu ahal izateko ahalmena dute, betiere talde aurkariaren oniritzia izateaz gainera Futbol-Aretoko Euskal Batzordeko Idazkaritzan dagokion partiduen aurreko asteko ostiralaren 19:30ak baino lehen idatziz jakinarazten badute. Aldaketa-dokumentu bateratu ala banatuak zigitu eta dagozkion klubetako sinadurak eraman beharko ditu.

Aldaketa horrek kolektibo arbitralarentzako suposatzen duen eragozpenaren ondorioz, joko-eremuaren jabeak diren klubek errezibo arbitralean **12 €**ko areagotze bat jasango dute.

Idatziz eskatuko ez balitz ala adierazitako epean jakinaraziko ez balitz, eskatutako ordutegi aldaketa debekatu egingo litzateke.

## 7. DIZIPLINA-BATZORDEA

Partida amaitzen denean, akta arbitrala Euskal Batzorde honetara igorriko da, presazko postaz ala fax bidez, Epaile Bakarrak bere akatsa igorri eta jakinarazi dezan, hala balegokio. Akta CVFS-ren esku egon beharko da astearteko 18.30ak baino lehenago.

Hau guztia klub lehiakide, Futboleko Arabako Federazio, Futboleko Bizkaiko, Futboleko Gipuzkoako eta Futbol-Aretoko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari jakinarazten zaie, bere ezagutzarako eta dagozkion ondoriotarako.

2008 ko martxoak, 15 Bilbon

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General